

# IPAR EUSKAL HERRIKO BERRIAK

"NOIZ": 25ean Ligi-n (Zuberoa)

Dela egun guti Beasango "Usurbe" zineman eman zea "Noiz" antzerkia. Jende anitz mone zen antzerkia ikusten. Txaloe ere ugari entzun omen zen. Daniel Landart, antzerkigilea, eta bere lagunak, antzestzaileak alegia, oso kontent omen ziren.

Egun hartan joan ez ginelen ere agertu nahi genduke gure poza eta esker beroa. Norentzat eta zergatik?

Norentzat? "Usurbe" zineman bildu ziren guztiak, eta, batipat, hango antzuleentzat. Norik ez bada, Segur gara puntu korretan! Bainan bada bat, gure ustez behintzat, nagusi nagusia. Zein da hori? Euskal Herria nola osatzen den agertu nahi denean, eta arlo horretan bada hamaika lan, herriokabidea deritzagun bide ederrena, ez ordea arrexan! Honekin zera esan nahi dugu eta ez besterik: "Usurbe" zineman, "bestaldekoak" eta "hemengoak" elkartu zirela "Noiz" antzerkiaren aldamen. Hori ez al da arrazoin nagusi nagusia "Usurbe" zineman, dela guti, bildu ziren guztiak gure poza eta esker beroa agertzeko?

Naiatzaren 25ean Zuberoako Ligi herrixkan eman zen "Noiz" antzerkia. Jende anitz omen zen!

Baditri, ipar aldeko antzerkia espresio bide berezitat hartu dutela. Daniel Landarentzat antzerkia bide berezitat bat bilakatu da eta bere asmoa da bide hori are eta gehiago hedatzea euskaldunon artean. Beraz euskaldunok jarrai dezagun, baita ere, bide horren barnetik!

## YOLDI-n, LARZAC-ken... BASERRITARRAK KEXU DIRA

Joan zen urtearen amaieran Yoldin montatu zen toberaz mintzatu ginaran lehen ere.

Larzac Occitania-ko eskualde handi bat da, Lyon-dik aski gertu dago. Eskualde honetan baserritar asko da. Baita ordea, bestelako jende mota bat ere bada, hots, militarrik! Hauek lur zabalak dituzte, eta, oraindik, gehiago nahi. Eta, noski, militarrik lur gehiago izanen badituzte baserritarrek, lehenik, atseki eman behar hori.

Eta Larzac-ko baserritarren izenean majina bat agerkaldi eratu da, nola Occitania-n hala Frantzia guztian. Horrelako agerkaldi bat baita ere izan zen Donibane Garatzen, orain dela egun guti.

Segur gara Larzac-ko baserritarren burruka hobeto ezagutzeko ipar aldeko baserritarren burrukarri indar berriak emanen dizkiola.

## "HITZ" 3 GARRENA

"Hitz" 3 garrena sailgai dago.

Oraingoak zazpi atal berezi ditu. Atal hauen izenburuak hura hemen:

- 1.—Euskal herria 75.
- 2.—Mundu Zabalean (Vietnam, Cambodge...).
- 3.—Azerketak (Zuberoa-berri).
- 4.—Askatasunaren Guduak.
- 5.—Kritikak (Diskak, liburuak...).
- 6.—Herriaren Lekuko (Belocq-ko Iratzder-ekin).
- 7.—Irakurleentz hitza.

## "ZABAL" 13 GARRENA

"Zabal" 13 garrenaren berri ere eman nahi dugu. Maiatza-Ekaineko zentzua da oraingo hau. Zortzi atal berezi edo handiak ditu.

- 1.—Nolako Den Gure Sozialisma.
- 2.—Aberzale Sozialista Erakundetzear.
- 3.—Kritikatu...
- 4.—Breitaina Handiko Herriak.
- 5.—Irlanda Kolonizatu.
- 6.—Kurdistan Eta Eritrea.
- 7.—Flamendiar Deputatu Batekin Solatzean.
- 8.—Louis Althusser-en Autokritika Gaiak.

## LIBURU BERRI BAT EUSKAL HERRIAZ

Dela zenbait egun, liburu berri bat argitara da: Liburuaren izenburua hauxe da: "Le Pays Basque". Liburuaren egilea, berriz, Georges Vires da, prantzesa jaiotzer baina Euskal Herria, batez ere ipar aldekoa, ongi ezagutzen duena. Hain zuzen, orain urte batzuk badira Georges Vires Euskal Herria etorri zela. Baigorria lizeoan erakatsi zuen denbora gure kondaira eta egungo pundu berezi batzuk astertu zituen. Gero doktoregura egitea Frantziara itzuli zen, Toulouse-ko irakasle bilakatuz. Orain, urteak piloka dituela, bainan beti berrin gazte sentituz, gure artean dago, Ezpeleten.

Bere liburu berriak 180 orri ditu. Zazpi atal nagusiki osatzen dute "Le Pays Basque" delako liburua. Zer da gai?

- 1.—Euskal herriko Kondairak.
- 2.—Kritika.
- 3.—Ipar Aldeaz.
- 4.—Hego Aldeaz ere bai zenbait pundu jakingarri.
- 5.—Abar.

Beste gauza gehiago ere ikus daiteke bertan. Liburuaren hitz-aurrea Haritselarren baitan da.

Gure ustez, liburuaren eginkizun nagusienetarik bat hauxe litzake: Euskal Herriaren berri, batipat ipar aldekoa, eman kaleko eta ez hain kaleko diren jende guztiok.

Georges Vires jaunari esker anitz liburuagatik! Eta ea liburu hori irakurriko duten gazte batzuek, egun batez, euskaraz argitaratzen dituzten honelako gai berezi hauek. Baldin hori pasatzen bada, eta zergatik ez?, Georges Vires kontent egon litzake.

URZOIA

**BLAS DE LEZO**  
 ETXE ONTAN DAUZKAZU SAGARDO, ARDO GAIN-GAINEKOAK  
 ETA EDARI GUZTITATIK

Blas de Lezo Kalea, 8  
 telefonoa: 41 20 85

**DONOSTIA**

# Ongi etorri, Zulaika

«...inoiz kartzela edo orbes-  
tea sofriztea merezi ez izana-  
ren kulpabilitate konplejoa bizi  
dugunok...» (Zulaika)

Poema sendo batekin agertu haiz gure artera: etorri ongi, — heure etxera. Hiru poema ospa genezakek — hik eta guzikiok — idazle berri baten su edo tinta bataioa ospa genezakek, orobat, eta Etxeparek abiarazitako aire hartan, eskuak harturik, «eta I leri bai lelo leloa, zaral leloa... goazen oro dantzara».

Denok pozten gaituk eta gurek hire poza haunderitako dik aplika.

Hemen hasten dituk zazpi bozkario eta doloreak, halare.

Jakin hezak nora etorri haizen, etorri: euskal idazlearen bidea guruzbidea duk. Bide zaila.

Mitorik ez diagu behar eta ezta konplejorik ere. Hik atzikaia eta aukera ematen didak, aspaldian esan nahi nuen zerbait esateko.


Estimaziorik haindiena idaz lanak gaur ez dik. Politikok, ekintzalek, fama gehiago diote. Kantariek fama gehiago diote. Eta arrazoiz, nik us- te. Zeregin diferente asko zegok. Idazleena inportantea duk, baina ez inportantea. Zailena ere ez duk. Arriskutsuena ere ez. Besterik ez baldiz horregatik bakarrik ere, eus- kal idazle bati ondo zetorkiokek apal samar egotea. Gizonak apenas zedukak arrazoirik, zergatik harro- tiko. Euskaldunak are gutiago. Eta euskal idazleak denetan gutien- gu- tiena.

Denentzako haina lan zegok. Eta denontzako haina leku zegok ze- rruaren azpian. Dantzari txarrak ba- karrik zapaizten dizkik lagunaren hanka punttak eta txokatzen dik inguruko guziekin. Bere kulpa duk hori, ez leuarena eta ez dantzare- na. Halabaina, euskal korroan kon- petentzia izpiritu harrigarri bat sor- tu duk, eta elkarri hanka punttak zapaldu gabe dantza egin. Politikok kulturalistez burlatzen dituk. Inte- lektualez eta poetez burla egiten duk. Eta ez duk zaila, nahi izanez gero. Burlarako haina arrazoi beti zegok. Gure etxean batez ere. Bai- na politikoez burla egiteko apenas zegok arrazoi gutiago. Eta, bai, po- litikoez ere burla egiten du. Aben- turero hutsak direla, esaten du, eta abar. Eta haiek, ostera: lengua sin manos, cuemo osas flabar? Eta in- telektualak, atzera: bururik gabeko aktibistak... Eta abar. Burla duk munduko gauzarik errazena. Eta errazenera jo diagu. Elkarri burla- burla gabiltzak.

Eta alderantziz, bakoitza bereaz harrotzen duk. Politiko edo politike- ro askok errazegi aurkitzen dik po- litikan konpentsazio bat, bere bu- rrua gloriaz eta koroiez korotzeko. Gizonaren xelebrea, gero! Kalami- dadeak ere bere glorien artean kon- tateza gustatzen zaio. Gartzelara erortzea, edo ihesi joan beharra, ondo begiratu, frakaso bat duk. Eta burugabekeria zirudik frakasoa martirio bihurtu eta frakasoaz har- ropuztea. Zorakeria zirudik, halare, gartzela eta herbestearen inbiritan (erki inbiritan bakarrik bada ere) beratzea eta urteza. Norbaitek bere sofrimintuari harrotzeko motibo ba- deritza, ordea, eta nekeak irabazi haundiko akzio bihurtzen baditu, gaizki hartuko al zioagu? Intelektual batek piska bat inlelijente ere izan behar dik. Eta ez zegok oso inle- lijente izan beharrik hori konpre- nitzeko. Gartzela eta herbestea pa- tua dituk. Patu gaitza. Zorigaitza. Inork ez dizkik apropos bilatu. Bes- talde, inork egin zigun injustiziarik apenas ohora eta harro zezakek inor, oraindik gizalege arrastorik gelditzen bazaigu behintzat. Gure gartzela edo desterrua injustizia de- la benetan sinetsita bagaudek, ez zedukagu zer harroturik gertakarria hortaz, eta bai zer lotsatu eta zer tristatu.

Norbaitek bere sofrimintuk be- re pribilegio bihurtu nahi baditu, bai, nazkagarria duk hori, bai, penaga- rri duk hori, bai. Baina intelektual baten lehenengo obligazioa, eta bigar- ren obligazioa, eta betiko obligazioa, ho- ri konprentzea duk, amor eman ga- be. Gaurko euskal intelektualek ez dik eskubiderik bere burua beste horrekin konpentsatzen ikusteko.

Idazlea, edo kulturalista, politi- koa bezalaxe, banaloriari emana



duk. Gustatzen zaio, horriat, be- re burua edertzea eta edertuta ikus- te. Gauza denak bezala, hau ere anibalentea duk eta ni ez nauk ba- naloria hori kondentzen duen mo- ralista puritanoetarik: idazlea ira- kurleriatik bizi duk. Bere arrakas- tak biziazten dik. Irakurlearen oi- hartzuna behar dik, biziko bada, be- leroak haizea behar duen bezalaxe.

Ez zegok hori gaitzesterik eta ez gutiesterik, anibalentea bada ere. Eta idazleak zein zail duen gaur, ez zedukat inori esan beharrik, idaz- leoi ere ez dogokigun neurri polit- iko bat besterik aplikatzen ez zai- gun artean. Idazleak horren kontra joan beharko dik. Idazleak bere le- kua defendatu behar dik. Baina ez bere lekua politiko bihurtuz, politi- ko antzak hartuz, eta politikoarekin konpentsatzen sartuz.

Zenbait idazle eta intelektualek, izan ere, kandelorarik altueneko kandelala izan nahi duela, zirudik. Eta bere burua beste guzien gaine- tik altxatzeko, beste guzietan burua

makurrarazten saiatzen duk. Baziru- dik, zenbait intelektualek ezin se- fritu duela, oraindago egoera honek politikoei ematen dien lehentasuna. Derrigor berek izan nahi dutela ve- dettke. Ezin jasan dutela, jendeak gehien miresten dituen heroeak, beste batzuk izatea.

Poetak, hots, intelektualek, Mar- xek esan ohi zuenez, lengau eta palagu zale ase ezinak omen dituk, ez zekiat zergatik. Denak omen di- tuk plus ou moins des courtisanes et il faut les cajoler, pour les faire cherner.

Hemen izpiritu txotxolipurdi bat oso zabaldua zegok: abenturak egi- ten edo gabiltza. Heroetara jola- sen. Eta ez zegok horrelakorik. Hemen eta orain, lanean ari gaituk edo ez gaituk ezertan ari. Lanean edo ez beste ezertan. Ez saltsa egi- ten, ez martirio bila eta ez ezertan. Eta herri gizaogun honen alde la- nari ekin dionak, martirioren bat edo, bere buruaren ukoa behintzat, bidearen hasiera-hasieran onatu dik. Amor fati, esaten ziguan Mitxe- lenak. Oso honek ondorioz laster ekarriko dituen oinaze eta marti- rioak, aogantatu beste erremedio- rik ez duk egongo. Ez oinazeagatik eta martiriogatik beragatik, lana- gatik bairtik eta lanak horietek da- karzkielako, orain orainoz. Lana duk herri hori eman diezakegun hobereña, eta ez martirioa. Ez de- zagun ahaztu, herri baten zerbizuan ari garela eta ez geure salbazio —ohore, etgi, bila.

Hator ongi, hator lasai. Makina bat konparazio ero entzun beharko duk. Hamaika erreprotxe zoro. Gi- roran zegok hori. Kitarra jotzen ari haizela, esango zaik. Baina zer: ho- rixak bere hemen behar dena, bako- itzak bere kitarra ondo jotzea. Ez mitorik eta ez konplejorik behar diagu = lujo gehiegi huke gure- zat.

Jose Azurmendi

## “Joxemiel Barandiaran II garren jakintzaldia”

ATAUN 1975

Ekainak 3, 4, 5, 6, 7 eta 8

Hitzaldiak S. Gregorio hauzoko aretoan, arratsaldeko 8,30etan:  
**Ekainak 3 (asteartea)**  
 «EUSKALHERRIA XIXGARREN GIZALDIAN» Leopoldo Etxeberriak.

**Ekainak 4 (asteazkena)**  
 «KULTURAZAZ, ZER?» Luis M. Mujikak.

**Ekainak 5 (osteguna)**  
 «SOZIO-EKONOMIKO EGOERA» Iñaki Larrañagak.

**Ekainak 6 (ostirala)**  
 «IRAKASLENTZEN BIDEETAN» Xabier Mendigurenek

**Ekainak 7 (larumbata)**  
 S. Martin auzoko «Altzanipe» zelaian eta gaueko 10etan:

### ABESLARIEN JAIALDIA

- Oihartzunak
- Pantxo eta Peio
- Gorka Knorr
- Amagar
- Gonzal Mendibil
- Hibai Reikido
- eta Laja-Iturbide trikitilariarik.

**Ekainak 8 (igandea)**  
 goizeko 8,30etan: Kalez-kale herriko txistulari talde berria- rekin.  
 goizeko 12etan: LAZKANO eta GORROTXATEGI bertsolari- ak eta «Altzanipe» zelaian: arratsaldeko 6etan: IRAULTZA dantza taldearen jaialdi be- rezia.

Ondorenean, ERROMERIA Laja-Iturbide eta herriko txistulariekin.

**JOSE ZINKUNEGIREN**  
**OPTIKA DONOSTIAN**  
 URTEETAN LANEAN OHITUA

Hernani, 4

**DONOSTIA**